Lagun maiteok:

Berriz, gure agurrarekin batera, hitzaldi batera gonbidatzen zaituztegu. Hitzaldia apirilaren 5ean, asteazkenean, arratsaldeko 19,30etan Sestaoko Udal Liburutegian izango da.

“Bolivia: iraultza bat martxan” tituluarekin Mugarik Gabeko Jesús González Pazosek gehiengoarentzat oso ezezaguna den herri horri buruz hitz egingo du. Bolivia, abenduko hauteskundeak eta gero, aldaketa historiko bat bizitzen ari da eta, horren ondorioz, Evo Morales lehenengo presidente indigena aukeratua suertatu zen
Bideo labur bat ikusi ondoren, “Fusil, metralla el pueblo no se calla”, gizarte-mugimenduak zelan sortu ziren, batez ere, Confederaciones Nacionales Indígenas y Campesinas izeneko erakundea, azken urte hauetako gertakizunak Moralesen partiduak boterea lortu arte eta gaur egungo gizarte-egoeraz, Jesusek hitz egingo du.

Uste dugu aukera on baten aurrean gaudela hamarkadetan diktadura militarretatik ateratzen ari den herri batera hurbiltzeko. Zure zain geratzen gara. Goraintziak.

Ezkerraldeko Komite Internazionalistak